


# ODOLAREN DEIA

Iñaki Irasizabal



Ane Maguregi – Iciar Aranda

Batx2, 2014

# Aurkibidea

Iñaki Irasizabal ..... 2

Sarrera ..... 3

## ***Odolaren deia***

. Kokapena ..... 4

. Gaia ..... 4

. Argumentua ..... 5

. Istorioa ..... 5

. Pertsonaiak ..... 7

. Egituraketa ..... 8

. Baliabideak ..... 8

. Iritzia ..... 8

. Bibliografia eta webgrafia ..... 9

# IÑAKI IRASIZABAL

Iñaki Irasizabal, Durangon jaio zen 1969an. Eta Zornotzan bizi da gaur egun.


Kazetaritza eta Soziologia ikasketak egin zituen unibertsitatean, baina industrian lanegin izan du eta margolaritzan ere zeinbait lan egin ditu.

Euskarazko liburuak edo nobelak idazten ditu, eta horien artean, hainbat genero beltzekoak dira.

Bere liburuen artean daude:

*Burua txoriz beterik*

(Augustin Zubikaria nobela laburren saria), *Mendarako txokolatea*, *Gu bezalako heroiak*, *Igelak benetan hiltzen dira*, *Orbe auziaren ingurukoak* eta *Bizkartzainaren lehentasunak*.



## SARRERA

Bi anaien arteko harremana kontaktzen du. Hainbat urte egon dira banandurik euren arteko harreman txarra zela eta. Orain, aitaren heriotzaren ondorioz harremanetan jarriko dira berriz eta anai zaharrenak, gazteenaren laguntza beharko du legez kanpoko arazo bat bideratzeko.

2011n argitaratu zen Gipuzkoan. Pertsonaia nagusiak Gorka eta bere anaia dira, eta istorioan zehar, beste hainbat pertsonai garrantzitsu agertzen dira. Hala nola, gorkaren anaiaren lantegian lan egiten zuen gizona. Oliveira izenekoa. Lehen aipatu dugun moduan, nobela beltzen artean kokatzen da. Gaur egunean kokatzen da eta leku arruntak agertzen dira, Bilboko hainbat kale eta Bizkaiko hainbat herri.

# **ODOLAREN DEIA**

## **KOKAPENA**

Bilboko Zazpi Kaleak, Sopela eta Mungia aldeko Gamiz-Fika dira kokaleku nagusiak. Idazleak esan bezala, «bi anaiok paralelismo handia dute. Bata txoriburu bat da, bestea eraikuntzako enpresaburua, serioagoa. Baina biek dauzkate antzeko akatsak eta antzeko alde onak».

Liburu honen bidez, idazlea saiatzen da nobela labur, beltz eta azkarra lortzen. Akzio askokoa da, badaude lapurretak, badaude ekintza bortitzak, eta abar. Denborari dagokionez, dena azkar pasatzen den sentzazioa transmititu nahi die Irasizabalek irakurleei. Leialtasuna da istorioaren gakoa. *Odolaren deia* deitzearen arrazoia, anaiak izatea gauza guztien gainetik ipintzen zuten, harremana galtzearen laguntza behar izan dutenean elkarri lagundu diotelako. Idazleak azaldu zuen bezala, «Leialtasuna norekiko? Odolaren pisua nabaritzen da».

Familiaren garrantzia ere nabarmenki erakusten du eleberri honek. Kontalariak bere neska-lagunarekin eta horrekin batera semearekin osatzen duena, adibidez. «Batetik, nobela batek errealitatearen isla izan behar du eta gaur egun familia ereduak gero eta ugariagoak dira. Modu askotako familiak daude eta denak dira onargarriak. Bestalde, nobela beltza izatean, gizarte kritika dago eta hori errazago egiten da protagonistak ez badu iragarkietan agertzen den familia horietako bat», adierazi zuen Irasizabalek.

## **GAIA**

Leialtasuna familiarekiko, denbora pasatu ahala.

## ARGUMENTUA

Bere anaiaren deia jasotzean bere aitaren heriotza dela eta, Gorkak, hiletara joatea erabakitzen du nahiz eta urteak pasa izan diren, bere familiarekin harremana galdu zuenetik. Gertaera tragiko honen ondoren, Gorkak eta anaiak haien harremana berpiztea erabakitzen dute.

Egunak pasata, eta konfiantza berriz sortzen denean, Gorkaren anaiak laguntza eskatzen dio ilegala den asunto bat aurrera eramateko. Gorkaren zeregina bere anaiaren enpresan lapurtzea informazio ekonomikoa zeukan ordenagailua, informazio guzti hori ordenagailutik atera eta CD batean ipintzea zen, asunto horrek enpresaren porrota eragin ahal zuelako. Bere zeregina bete ondoren, xantaiak agertzen dira Gorkaren anaiaren bizitzan.

Biek arazo hauek konpondu nahi izan arren, ez zuten ezer lortu eta are gehiago, hauek izan ziren anaiaren heriotzaren zergatiak. Heriotza honen ondoren eta Gorkaren ikerketak direla eta, konturatzen da bere anaia ez zela berak pentsatzen zuen bezala., eta bere anairen hilketa aurretik pentsatuta zegoela.

## ISTORIOA

Udaberriko goiz batean, Gorka bere teilatuan zegoenean bere munduan murgildurik, ustekabeko dei bat jasotzen du. Ainaia zen. Duela 20 urte gutxi gorabehera haien arteko harremana desagertu zen. Orain, aitaren heriotza da dei horren zergatia. Anaiak hiletara joatera bultzatzen du Gorka, nahiz eta berak gogorik ez duen. Gorkak herritik ihes egin aurretik, haien arteko harremana oso aberatsa zen. Baina Gorkak izandako istripu bat, non emakume batek bizitza galdu zuen, Gorkaren bizitza hankaz gora jarri zuen. Eta gutxi bazen ere, emakume horren amaren eskela ikustea, herritik alde egitera eraman zuen errudun sentimendua zela eta.

Behin hiletan, anairekin topatzean, haien arteko harremana berpizten dela sentitzen du, eta egunak pasatu ahala, konfiantza ere. Orduan, anaiak bere etxera gonbidatzen du Gorka, eta han bere alabak Aratz eta Jurgi eta emaztea aurkezten dizkio. Bertan ama ere bazegoen eta beti bezala jarraitzen zuen. Oso serioa eta irribarre eza. Ondoren, Gorka etxera eramatea erabakitzen du eta bertan istorioa guztiz aldatuko duen galdera egiten dio. Ea lagunduko dion, ilegala ez den asunto bat aurrera eramaten. Haien harreman estua dela eta, Gorka ez da kapaza ezetz esateko eta, beraz, onartzen du.

Zeregina, anaiaren enpresan sartzea eta enpresa porrotera eraman ahal duen informazioa daukan ordenagailua ostea zen.

Anaiak gertatu ahal diren gauzetaz ohartu arren, arazo bat sortzen zaio Gorkari. Enpresatik irtetean, txakur batzuk haginka egiten diote izterrean. Hala ere, dena ondo atera zen eta bere zergina bete zuen. Tratua zen, bere anaiarekin harremanetan ez egotea lapurreta gertu zenetik hilabete batera. Hilabetea pasata, anaiak Gorka deitzen du eta geratzen direnean kafe bat hartzeko, anaiak esaten dio xantaiak jasotzen ari dituela. Orduan, laguntza eskatzen dio berriz gorkari xantaiaren erruduna nor den jakin ahal izateko. Horretarako, diru trukaketa egingo den lekuan geratzen dira, eta eskatutako 12000 euroko poltsa uzterakoan, ezuztean motordun mutiko bat agertzen da poltsa hartzeko, eta beraz, ezin izan zuten jakin nor zen. Gertaera hauek izaten diren bitartean, Gorka anaiaren familiarekin harremana estutzen du. Batze ere Aratzekin. 17 urteko neska, behin eramaten duena etxera Gorkak lan egiten zuen tabernan mozkorturik ikusten duenean. Honekin batera, bere anaiari buruzko gauza berriak jakinarazten dizkiote. Adibidez, Oliveiraren asuntoa. Oliveira, anaiarentzat lan egiten zuen gizona zen, eta zenbait arazo izan zirela eta, Oliveriira kanporatua izan zen, eta liskar gogor bat izan zuten, gero istorioan erasgin handia izango duena.

Egunak pasata, Gorkak amaren deia jasotzen du. Deiaren arrazoia, anairen heriotza zen.

Anaiak, dei bat jasotzen du enpresan lan egiten ari zela, eta Oliveiraren etxera joatera bultzatzen duena. Bertan, anaiak paperak galtzen ditu eta Oliveirak joateko esan arren, ez zion jaramonik egin eta azkenean tiro egin zion. Anaia hil zen. Gertaera horiek direla medio, Gorka hilketari buruz gehiago jakin nahi du, eta Oliveiraren etxera joatea erabakitzen du. Oliveirak esaten dio ez zekiela anairen bisitaren zergatia, eta bere familiaren eta beraren bizitza arriskuan ikusi zituenean, tiro egitea erabaki zuen. Gorkak erantzunak ez aurkitzean, berak lapurtutako ordenagailua agian erantzuna izango zuela pentsatu zuen. Baina oker zegoen.

Goiz batean, etxetik ateratzean, CD bat aurkitzen du ate ondoan. Eta hau ikustean konturatzen da bere anaia drogetan murgilduta zegoela bai eta 15 urteko neskekin harreman sexualak zituela. Eta hori zela, denbora guzti horretan bere anaia ezkututzen saiatzen ari zela. Bideoa gertatzen zen lekua ezaguna izan zitekeen dudarekin Aratzi horri buruz galdetzea erabaki zuen. Eta hor, Aratzen egi guztia jakinarazi zion. Anaiak proposamenak egiten zizkien Aratzen lagunei, eta honen eta lagun batek mendekua hartzea erabaki zuten. 12.000 euro eskatzea uda on bat pasatzeko. Xantai eskuetatik joaten zaie eta berriro 12.000 euro eskatzen dizkiote. Baina ez ziren konturatu, guzti horrekin bere aita heriotzara bultzatuko zutela.

## **PERTSONAIAK**

**Gorka.** Liburuko protagonista da. Aspertzen zenean teilatura igotzen zuen, bertan esertzen zen sarritan zerbeza lata batekin, urtaro epeletan batez ere.

Aspalditik galdu zuen harremana familiarekin, gaztetan drogen munduan eta zenbait asunto zakarraetan murgilduta egon zelako. Bere iragana alde batera utziz, orain pertsona on bat da, baina bere sentimenduak erakusten ez dituen. Bere anaia asko maite du nahiz eta bere bizitzako denbora luze bat berarekin egon ez den. Eta horren adierazgarri dan, beti laguntza eskaintzen dionean.

**Anaia.** Faltsua den itxura bat ematen du liburu osoan zehar. Benetan drogazalea da, eta harreman sexualak izaten ditu gazteekin. Eta horrek eramaten gaitu pentsatzera ez dagoela pozik bere bizitzarekin nahiz eta emaztea eta alabak izan. Azkenen, bizitza mota hori heriotzara eramaten du.

**Aratz.** Gorkaren iloba da. Paper garrantzitsua jokutzen du istorioan zehar. 17 urteko gaztea da, eta argi dago ez dela konturatzen egiten dituen hainbat gauzetaz. Ohikoa den zerbait 17 urteko nesken artean. Bere benetako aita ez da Gorkaren anaia.

**Garazi.** Anaiaren emztea da. Berarekin alaba bat euki zuen Jurgi izenekoa. Badirudi emakume hotz bat dela, batez ere anaiarekin. Eta mesfidatia aldi berean pentsatzen duelako Gorka dela anaia tragediara eramango duena, nahiz eta frogarik ez izan.

**Nadia.** Gorkaren neskalaguna da. Errumaniarra da eta alaba bat du, Gica. Beti egon dira Gorkari laguntzen eta laguntza eskeintzen. Gorka asko maite duela nabaritzen da liburuan zehar bere sentimenduak erakusten duen gutxienetarikoa bat delako.

**Gica.** Nadiaren alaba bakarra da. Oso harreman on eta estua dauka Gorkarekin eta bere bizitza pertsonalari buruzko arazoak kontatzen dizkio Gorka konfiantza sentiarazten diolako.

**Oliveira.** Oso harreman ona zeukan Gorkaren anaiarekin, baina arazo batzuk zirela eta, haien arteko harremana apurtu zen eta azkenean anaiaren hilketaren erruduna izango zen. Baina, Gorka berarekin hitz egitera joaten denean, erakusten dio bere anaiari aprezioa ziola eta ez zela bere intentzioa hiltzea.

## **EGITURAKETA**

Denborari buruz, lineala dela esan dezakegu, nahiz eta liburuaren hasieran zenbait flash-back erabiltzen dituen bere gaztaroari buruz pasarteak jakinarazteko irakurleari. Kontaketa kapituluka eginda dago. Bost kapitulu daude konkerituki. Denbora tartekak laburrak dira. Hau da, ez dira urteak pasatzen eta denboraldi luzeagotxoak pasatzen direnean, adierazten du esanez: Hilabete bat geroago eta abar.

## **BALIABIDEAK**

Liburuan zehar, deskribapenak oso urriak dira. Fisikoak zein pertsonalitatekoak. Hala ere, lekuak gehiago deskribatzen ditu, hala nola, bere teilatuak, Bilboko kaleak eta abar.

Elkarrizketak ez dira nabarmenak, ia guztia narrazioaren bidez kontatuta dagoelako. Barne bakarrizketa ez da garrantzitsua ere, eta kontatzeko erari dagokionez, ez dago bitxikeriarik eta hizkuntza kolokiala erabiltzen du liburu osoan zehar. Lehenengo pertsonan kontatuta dago, eta beraz zerbait pertsonala da.

Ez ditu erabiltzen ezta metaforak ezta konparazioak ezta beste figura literario batzuk.

## **IRITZIA**

Nahiz eta sinopsiak interesgarria eman ez, istorioak lehenengo momentutik hasita zerbait dauka irakurlea engantxatzen duena. Izan daiteke misterioa, edo ondo kontatuta egotea. Kontaketari dagokionez, ez da kantsagarria eta erraz irakurtzen den liburua da. Hizkuntza eta kontatzeko modua egokiak dira, adin desberdineko pertsonentzat, eta ez du bitxikeria nabarmenik esaten.

Liburu honen generoa, misterioa, gehien erakartzen duen liburu mota da, eta beraz, jada erraz irakurtzen bada, horrek gehiago bultzatzen du irakurlea istorian murgiltzera. Errealitatean gertatzen ez den gauza bat kontatzen duenez, liburua irakurtzean, irakurleari beste leku batera eramango duen sentsazioa sortzen dio. Hala ere, egia da kapitulu gutxi daudela eta oso eskasak direla. Beraz, irakurketa pixka bat astuna egiten da egoeren banaketa gutxi daudelako. Flash-backak, alde batetik pertsonaiei buruz gehiago jakitera eramaten duen arren, hasieran kokatzen dira eta horrek irakurlea istorioaren haria galtzera eramaten du.



Pertsonaien deskribapenen falta nabaritzen da, irakurlea berak imaginatu behar ditu, eta liburu bat irakurtzerakoan lagungarria izan daiteke pertsonaia fisikoki eta pertsonalki ezagutzea. Beraz, deskribapenak ez egotea alderdi negatibo bat izan daiteke liburuaren kritikan.

Obraren mezuari dagokionez, bi mezu nagusi nabaritzen dira. Alde batetik, familiaren garrantzia denbora pasa ahala harremanik izan gabe, eta pertsonak askotan ez direla pentsatzen dugun bezala. Batzuetan, sorpresa aurkitzera eramaten ditu pertsonak protagonistari bezala.

## **BIBLIOGRAFIA ETA WEBGRAFIA**

*Odolaren deia*. Iñaki Irasizabal. Elkar

[blog/ IñakiIrasizabal](#).

[Gatika.es/ kultura](#)

[wikipedia.com/IñakiIrasizabal](#)